AMESLARIOK... ZER BERRI?

Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

ASTEKARIA: 30. atala | DATA: 2025/01/31

GUREAN

MURAL BERRIA

Artista ugari ditugu ikastolan. Kasu honetan, primerako margolariak aurkitu ditugu DBHko 4.mailako ikasleen artean. Urtean zehar, proiektu asko jartzen ditugu martxan eta urtarrilean "Adimen artifiziala eta murala" ikastaroari egurra eman diogu. Mikel Remak eta Jokin Oregui "Sor2" artista bergaratarren laguntzarekin, portxeko murala bukatu dugu. Bi gazte horiek munduan barrena ibiltzen dira koadroei eta paretei bizitza ematen. Euskal Herrian, Australian, Indonesian eta munduko txoko askotan aurki daiteke beraien obra.

GURE INGURUAN

SAN BLAS JAIAK

NON: TOLOSA
NOIZ: OTSAILAK 1-3

OTSAILAK 1, LARUNBATA

10:30ean Txupinazo eta bedeinkapena
11:30ean Haur jolasak
18:30ean Disko festa

OTSAILAK 2, IGANDEA

9:00etan Txistulariak
9:30ean Diana, Konponezinak txarangaren eskutik
12:00etan Aizkolariak: Eneko Saralegi eta Txomin Amundarain
12:45etan Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Iker Zubledia
18:00etan Bertsolarien bigarren saioa
18:45ean Trikitixa, Elustondo anai-arreben eskutik

TRINTXERPEKO KALDEREROAK

NON: TRINTXERPE
NOIZ: OTSAILAK 1

Otsailaren 1ean, Kaldereroen desfilea egingo da, urtero bezala, Trintxerpen. Illumbeko Jai Batzordearen eta Pasaia Musikalaren laguntzarekin antolatzen duen ekimena da.

Bihar, 11:45ean elkartuko dira Andonaegi jauregian eta ondorengo ibilbidea egingo dute: San Sebastián kalea, Urgull kalea, Oiartzun kalea, Ulia etorbidea (bertan, geldialditxo bat kantatzeko), Azkuene kalea (geldialdia), Euskadi etorbidetik Gernika plazaraino (geldialdia), Gudarien plaza (geldialdia) eta amaiera Serafin Esnaola plazan. Anima zaitezte!